



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko maiatzaren 15ean

51 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru lege proiektua, Nafarroako Kirolari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).
- Iruña-Logroño errepidea eraiki, ustiatu eta finantzatzeko Foru Lege proiektua. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua, saltoki handietarako zerga bat sortzekoa (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1988 Foru Legearen 55. artikuluan beste lerrokada bat (4.e) gehitzekoa (8. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (9. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, besteak beste, bertan behera utz ditzan azken hilabeteotan euskararen inguruan hartutako neurriak (10. or.).
- Mozioa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sakanan industriarako lurzorua sor dezan (11. or.).
- Mozioa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Estatu espainiarreko Gobernua premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten garapenaren aldeko lankidetzari dagokionez (12. or.).
- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da zainzuriaren etiketen gainean berariazko arauak onets ditzan (14. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da animalien hondakinak osoki tratatzeko enpresa publiko bat sor dezan. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak bazter utzia (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Foru Komunitateko ureztapenen plana azkartu eta bete dezan. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak bazter utzia (15. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, Cetenas enpresa publikoari buruzkoa (16. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, Erriberriin telebista kateak ongi ikusteko arazoei buruzkoa (17. or.).
- Galdera, , foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak egina, Nafarroako autobideko aparkalekue-tan kamioiak aparkatzeari buruzkoa (17. or.).
- Galdera, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak egina, Tuterako Irakasleentzako Laguntza Zentroan jardunaldi batzuk debekatzeari buruzkoa (18. or.).
- Galdera, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak egina, Altsasuko suhiltzaileen parkeko zerbitzu medikuduna hobetzeari buruzkoa (18. or.).
- Galdera, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak egina, epetxe berriak izanen duen kokalekuari buruzkoa (19. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko (21. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- 9/2000 Foru Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Zerga bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena (27. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru lege proiektua, Nafarroako Kirolari buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 7an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroako Kirolari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea

2001eko maiatzaren 21eko eguerdiko hamabiak arte luzatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2001eko maiatzaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Iruña-Logroño errepidea eraiki, ustiatu eta finantzatzeko Foru Lege proiektua

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 7an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Iruña-Logroño errepidea eraiki, ustiatu eta finantzatzeko buruzko Foru Lege proiektuari

zuzenketak aurkezteko epea **2001eko ekainaren 4ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2001eko maiatzaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, saltoki handietarako zerga bat sortzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 7an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeteari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak saltoki handietarako zerga bat sortzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Saltoki handietarako zerga bat sortzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, saltoki handietarako zerga bat sortzekoa**ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako hiri-ereduaren ezaugarri historikoe-tako bat merkataritza-jarduera garrantzitsua edukitzea da. Merkataritza-jarduera hori hiriko bizitza dinamizatzeko eta lurzoru nahiz eraikuntzaren erabilera ezberdinak orekatzeko elementu garrantzitsuenetarikotzat jotzen da, halako heinean non beheko solairuan saltokiak egoteak Mediterraneo-ko eremuan berezko hirigintza-eredua sortu baitu. Eredu horretan, merkataritzak jarduera ekonomikoari eusten laguntzen du, biziaren beharrei erantzuten die, eta topagune nahiz harremangune bilakatzen da. Familia-enpresa txikiz osaturiko enpresa-jarduera bat da, eta lanpostu egonkorrak

sortzen ditu; jarduera ekonomikoaren esparruan garrantzi handia dauka.

Azkenaldi honetan, banaketa- eta salmenta-enpresa handien etorreraren ondorioz, gure hirietako merkataritza-eredua aldaketa funtsezkoa pairatzen ari da. Enpresa horiek penetrazio ekonomikorako ahalmen handia daukate, eta merkataritzaren arloko ohiturak eta egitura, batetik, eta lurralde-antolamenduko eredua, bestetik, haien eragina jasaten ari dira. Izan ere, merkataritza-jarduera hirigunetik kanpoaldera bultzatzen ari dira, eta horrek hiriguneko eremuak piskanaka narriatzea ekartzen du –horiek leheneratzeko, inbertsio publiko handia behar da–. Saltoki handi horiek kokatzeko, urbanizaturiko eremu berrietako lurzorua behar izaten da, eta komunikazio-azpiegiturak ere bai, ibilgailuen joan-etorriak posible egiteko. Halaber, ingurumena kaltetzen da, eta euren inguruan hirigintza-igurikapenak sortarazten dituzte. Orain arte, espekulazio argi eta garbiko prozesuak gertatzea ohikoa izan da, hala planeamenduko xedapenei eta horren erabilerei dagokienez nola kasuan kasuko merkataritza-baimenak lortzeari dagokionez, eta, presioa eginez eta eraginak erabiliz, benetako norgehiagokak egon ohi dira, eremurik onenak kosturik txikienaz lortzeko. Espekulazio-prozesu horiek babes ofizialeko etxebizitzetarako sustapenen edo bestelako dotazioen bidez (baita zentrotik kanpoaldera dotazio-eremu pribatuak lekualdatuz ere) zuritu nahi izan dira.

Instalazio horiekin izandako esperientziak erakusten du berehalako trafiko-gorakada handiak izan ohi direla, errepideak gainezka egotea, errepideak neurri handian hobetu beharra, era guztietako inmisioen ondoriozko kutsadura, errepide-sareak egokitu eta mantentzeko inbertsio publikoko beharrian berriak, eta kostu sozial eta ekonomikoak, ingurumenak eta hiriaren zentroko merkataritza-jarduerak pairatzen duten kaltearen ondoriozkoak. Hori guztia dela-eta, administrazio publikoak inbertsio handiak egitera behartuta egoten dira; izan ere, jarduera ekonomiko horrek, erosketa-ohiturak ez ezik, bizimoduak, hiriaren

kalitatea eta bertako zerbitzuen antolaketa ere aldatzen ditu, eta hortik zenbait gizarte-kostu eratortzen dira.

Gizarte guztiari hain ondorio eta kostu sozial eta ekonomiko handiak ekartzen dizkion ekonomi jarduera mota horri zerga bat ezartzea zilegi da. Ezin da onartu jarduera horretatik etekinak lortzen dituztenak euren jardueraren kostuak ingurumenari, lurraldearen antolamenduari, azpiegiturari eta hiriko bizitzarari jasanarazten saiatzea. Kanpo-eragin horien orde, kostuen barnekotasuna lortu behar da. "Fiskalitate berde" deritzonaren ildoan, xedea hau da: merkataritza-eremu handiek kokaleku eta etekin handien iturri daukaten erkidegoari ordain bat ematea, hain zuzen ere, azpiegiturek, ingurumenak, lurralde-antolamenduak, hirigune tradizionalak eta horien bizitzak eta jarduera ekonomikoak haien ondorioz jasaten dituzten eraginaren ondoriozko kostu ekonomiko eta sozialen truke. Hirigune tradizionalak dagokienez, piskanaka hondatzen ari dira. Merkataritza-jardueraren menpean daukatela, gizarteak azpiegitura eta zerbitzuetarako eginiko inbertsio handiez baliatzen da euren lehiakortasuna; hori dela-eta, zentroaren eta kanpoaldearen arteko lurralde-orekari lagundu behar diote, hiriguneetako barnealdeko eta kanpoaldeko merkataritza-jardueren artekoari.

Helburu horiek lortzeko bitarteko bat fiskalitateaz kanpoko tributu bat eratzea da. Xede jakin bati loturikoa litzateke, haren bidez lorturiko baliabideak aipatu diren jardueretarako (lurraldea eta sektorea berriro orekatzea) aplikatuko bailirateke. Nafarroako Foru Komunitateak badauka horrelako tributu bat sortzeko eskumena, tributu-autonomia erabatekoa baitauka, LORAFNAko 45. artikulua ezarritakoaren arabera. Halaber, lurralde-antolamenduari (44.1 artikulua), ingurumenaren (57. artikulua) eta barne-merkataritzaren (56.1.d artikulua) arloetan ere eskumena dauka.

Legeak hamar kapitulu, hamazazpi artikulua, xedapen gehigarri bat eta azkeneko bi xedapen dauzka. Lehen kapituluaren ezartzen diren legearen xedea eta aplikazio-eremua, eta adierazten da dirusarrerak helburu zehatzei loturik egonen direla, merkataritzako eremu eta saltoki handien jarduerak lurralde antolamenduan, ingurumenean, azpiegiturretan eta hiri-zentroetako jardueran dauzkan eragin negatiboak ordaintzeko. Bigarren kapituluak zergaia, horren salbuespenak eta subjektu pasiboa arautzen ditu. Zerga-oinarria, likidazio-oinarria, tasa eta tributu-tasa hirugarren kapituluaren zehazten dira. Laugarren kapituluak zergaldia arautzen du, eta, bosgarrenak, zergaren kudeaketa eta zergadunen eroldaren ezarpena. Kudeaketa-, ikuskapen- eta dirubilketa-egintzen

berrikuspina eta araubide juridikoa seigarren eta zazpigarren kapituluaren arautzen dira.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Legearen xedea eta aplikazio-eremua.

Lege honen xedea saltoki handien gaineko zerga bat sortzea da. Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean ezarritako guztiei aplikatuko zaie zerga hori.

2. artikulua. Zergaren xedea.

Merkataritza-eremu eta saltoki handien ahalmen ekonomikoari ezartzen zaio zerga; izan ere, horiek kanpo-eragin negatiboak sortzen dituzte, ez dutelako euren gain hartzen gizartearen bizitzari eragiten dioten kostu ekonomiko eta sozialak ordaindu beharra; batez ere, honako esparru hauetakoak: hiriguneetako egituraketa eta jarduerak, lurralde-antolamendua, ingurumena eta azpiegiturak.

3. artikulua. Baliabideen lotura.

Zerga honen bidez lorturiko dirusarrerak lotuak egonen dira hiriguneak birgaitzea, horietan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzea eta ingurumena nahiz azpiegitura-sareak hobetzea xedetzat duten jarduketa-programen prestaketa eta exekuzioa ordaintzera.

II. KAPITULUA

Zergaia, salbuespenak eta subjektu pasiboa

4. artikulua. Zergaia.

1. Zergaia txikizkako salmentan diharduten eta behar den merkataritza-baimena duten saltoki eta merkataritza-eremu handi eta indibidualen jarduerak eta funtzionamendua da; hain zuzen ere, hiriguneetan eta bertako jardueretan, lurralde-antolamenduan, ingurumenean eta azpiegiturretan eragiten dutelako.

2. Saltoki indibidual handiak dira instalatzen diren unean edo beranduago haztearen ondorioz 1500 metro koadro edo gehiagoko azalera izatea-gatik halakotzat jarduteko baimena jaso dutenak.

5. artikulua. Salbuespenak.

Zergaren aplikaziotik salbuetsirik egonen dira lorezaintzan eta ibilgailuen, eraikuntza-materialen, makineriaren eta industri horniduren salmentan diharduten merkataritza-eremu edo saltoki indibidual handiak.

6. artikulua. Subjektu pasiboa.

Zergaren subjektu pasiboa 4. artikulua definituriko saltoki edo merkataritza-eremu indibidual handiaren titularra den pertsona fisiko edo juridikoa da, kontuan izan gabe saltoki kolektibo handi batean kokaturik dagoen ala ez.

III. KAPITULUA**Zerga-oinarria, likidazio-oinarria, karga-tasa eta kuota****7. artikulua.** Zerga-oinarria.

Zerga-oinarria saltoki handi indibidualaren gutzitiko azalera da, metro koadrotan adierazia. Azalera hori honako kontzeptuek osatua izanen da:

a) Merkataritza-ekipamenduei buruzko beraiazko legediaren arabera salmenta-azalera, azalera exentuko 1.499 metro koadroetan murriztua.

b) Biltegi, tailer, labe eta produkzio-eremuetarako azalera, salmenta-azalera murriztuaren eta salmenta-azalera egiazkoaren artean dagoen erlazioaren proportzioan murriztua.

c) Salmenta-azalera murriztuari honako tarte hauen arabera aplikatzeko den koefizientea aplikatzearen ondoriozko aparkaleku-azalera:

- Saltoki espezializatuak: 0,5
- 1500 m²tik 2499 m²ra bitarteko saltokiak: 1,2
- 2500 m²tik 3499 m²ra bitarteko saltokiak: 1,4
- 3500 m²tik 4499 m²ra bitarteko saltokiak: 1,6
- 4500 m²tik 5499 m²ra bitarteko saltokiak: 1,8
- 5500 m² edo gehiagokoak: 2.

Koefizientea aplikatzeari dagokionez, saltoki espezializatutzat jotzen dira noizean behin kontsumitzen diren produktu-multzo jakin batzuk nagusiki saltzen dituztenak; zehazki, honako hauek: altzariak eta etxeko gauzak, ekipamendu pertsonala, brikolajea, jostailuak, kirolak eta aisialdia.

8. artikulua. Likidazio-oinarria.

1. Likidazio-oinarria zerga-oinarriari 2. idatz-zatiak ezarritako koefizientea eta 3. idatz-zatiak ezarritako murrizketa, egoki bada, aplikatzearen ondoriozko emaitza izanen da.

2. Saltokiaren proiektzio horizontalak hartzen duen lurzoru-azaleraren arabera, honako koefiziente hauek aplikatuko dira:

- 2500 m² baino gutxiago: 0,5
- 2501 m²tik 5000 m²ra bitartean: 0,7
- 5001etik aurrera: 1.

3. Altzari-salmentaren, saneamendu-produktuen, eraikuntzako arotzeriaren eta brikolajearen arloetan diharduten subjektu pasiboen likidazio-oinarria 2. idatz-zatia aplikatuz lorturiko emaitza-ren gain % 60ko murrizketa aplikatuz lortuko da.

9. artikulua. Karga-tasa.

Karga-tasa metro koadro bakoitzeko 30.000 pezetakoa izanen da.

10. artikulua. Tributu-kuota.

8. artikulua arabera kalkulaturiko likidazio-oinarriari aurreko artikuluko karga-tasa aplikatuz lortzen den emaitza izanen da zergaren tributu-kuota.

IV. KAPITULUA
Zergaldia**11. artikulua.**

Zergaldia urte naturala izanen da. Irekitzeko edo handiagotzeko baimena urtarilaren bata baino beranduago ematen bada, zergaldia kontatuko da baimen horren egunetik urtearen azken egunera arte. Saltokia itxi egiten bada, zergaldia urtearen lehen egunetik itxiera-egunera artekoa izanen da.

V. KAPITULUA**Zergaren kudeaketa eta zergadunen errolda****12. artikulua.** Zergadunen errolda.

Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun Departamentuak urtero zergako subjektu pasiboen errolda bat egin eta argitaratuko du Foru Komunitateko Aldizkari Ofizialean, zergaren aplikaziorako beharrezkoak diren haien datuekin, zeinak prestatuko baitira horiek aitortu ondoren administrazioak behar bezala egiaztatu eta gero.

Errolda horretan bilduko dira subjektu pasiboen merkataritza-identifikazioko datuak, eta baita sozietate-kapitalaren osaera eta titulartasunari buruzkoak, merkataritza-banaketa sektorean Foru Komunitatean eta Foru Komunitatetik kanpo daukan partaidetza-kuotari buruzkoak, eta saltoki handien jardura arautzen duen foru legeak eskatzen dituen guztiak ere.

13. artikulua. Aitorpena.

1. Zerga hau aplikatzen zaien saltokiak ireki baino lehen, horren subjektu pasiboei aitorpen bat aurkeztu beharko dute Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun Departamentuan. Aitorpen horretan, zerga aplikatzeko beharrezkoak diren datu guztiak, zeinak erregelamendu bidez zehaztuko baitira, bilduko dira.

2. Subjektu pasiboek jakinarazi egingen diote aipaturiko departamentuari gertatzen diren eta zergako elementuetan eragiten duten aldaketa guztiak, halako moldez non, egiaztatuak izan ondoren, kudeaketa-prozesuetan sar daitezzen, eta likidazioan aldaketak eragin ditzakete, haien arabera ez bada. Likidazio gehigarri bat egin behar izanen balitz, subjektu pasiboari jakinaraziko zaio, eta erregelamenduak ezarritako epean ordaindu beharko du.

3. Saltokia itxi egingen balitz, alde zaurerik Ekonomía eta Ogasun Departamentuari jakinarazi beharko zaio, behar den likidazioa egin dezan. Likidazio hori subjektu pasiboari jakinaraziko zaio.

14. artikulua. Ordainketa.

1. Erregelamenduz ezarritako baldintzetan ordainduko da zerga.

2. Irekiera-urteari dagokion zerga-kuota kuotaren urte osoko kuota hura amaitu arte geratzen diren egunen kopuruaren arabera hainbanatuz lorturiko emaitza izanen da.

3. Itxiera-urteari dagokion zerga-kuota urte osoko kuota zergaldiaren hasieratik itxiera-egunera arte igarotako egunen kopuruaren arabera hainbanatuz lorturiko emaitza izanen da.

4. Tributu-zorra geroratu eta zatikatu ahalko da, Nafarroako Ogasuna titular deneko tributukredituetarako ezarritako izaera orokorreko baldintzetan.

15. artikulua. Kudeaketa eta ikuskapena.

1. Zerga kudeatu eta ikuskatzea Nafarroako Gobernuaren Ekonomía eta Ogasun Departamentuari dagokio.

2. Nafarroako Gobernuaren Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak eta Nafarroako udal eta gainontzeko toki erakundeek laguntza emanen dute, Ekonomía eta Ogasun Departamentuari berehala eta inolako eskakizunik

behar izanik gabe zerga kudeatu eta ikuskatzeko beharrezkoak diren datu, baimen eta informazio guztiak helaraziz.

VI. KAPITULUA
Zehapen-araubidea

16. artikulua. Arau-haustea, zehapenak eta preskripzioa.

Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean ezarritako araubide orokorra aplikatuko da.

VII. KAPITULUA
Araubide juridikoa

17. artikulua. Egintzak inpugnatu eta berrikus-tea.

Zerga kudeatu, ikuskatu eta biltzeko egintzak eta, halaber, horien inpugnazioa eta berrikuspena, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean ezarritako printzipioen eta araubidearen arabera izanen dira.

Xedapen gehigarria

Lege hau aplikatzeko suertatzen zaien saltoki irekietako titularrek legeak indarra hartzen duenetik hilabeteko epean aurkeztu beharko dute hasierako datu-aitorpena, Nafarroako Gobernuaren Ekonomía eta Ogasun Departamentuak zergadunen errolda eta urteko epearen hainbanatzeari dagokion likidazioa egin ditzan.

Azken xedapenak

Lehenena. Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Bigarrenena. Nafarroako Gobernuari eta Ekonomía eta Ogasun kontseilariari esku ematen zaie foru lege hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko.

Foru Lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1988 Foru Legearen 55. artikuluan beste lerrokada bat (4.e) gehitzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 7an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1988 Foru Legearen 55. artikuluan beste lerrokada bat (4.e) gehitzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1988 Foru Legearen 55. artikuluan beste lerrokada bat (4.e) gehitzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1988 Foru Legearen 55. artikuluan beste lerrokada bat (4.e) gehitzekoa

ZIOEN AZALPENA

Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren 55. artikuluan gutxieneko familiarra arautzen da, egoera familiarra kontutan hartuz. Helburu horrekin kontzeptu desberdinak zehazten dira aipatutako artikulua 4. idatz-zatian, besteak beste, hirurogeita bost urtez goitiko aurreko ahaide izatea; hogeita hamar urtez beheitiko ondorengo ahaide ezkongaberekin bizitzea; subjektu pasiboaren menpe dagoen ondorengo ahaide ezkongaberekin bizitzea gutxiagotasuna baldin badauka; pertsona lagundutzat hartzen den hiru-

rogeita bost urte edo gehiagoko ahaiderekin bizitzea.

Fiskalitateak inoiz ezingo badio ere kasu pertsonal edo familiar guztiei aurre egin, eta kasu orokorrenak eta errentaren benetako erabilgarritasunari gehien eragiten diotenak jasotzeko borondatea badu ere, gure ustez badago egoera bat jasotzen ez dena eta Nafarroako familia askori eragin eta gastu ekonomiko handia dakarkiena. Xedapen judizialaren bidez ahaideren bat askatasungabetua izateari buruz ari gara.

Askatasunik gabe egotea, bere gizarte inguruetik urruntzearekin larriagotua, zigor handia da jasaten duenarentzat baina zigor hori gizarteak ere jasaten du, eta berezikí ahaide zuzenenek; izan ere, azken horiek pertsona horrek eman lezakeen dirusarrerarik gabe geratzeaz gainera, kostu ekonomiko handia jasaten baitute, bai bisitak egiteko garraioak eta bai pertsona horren jantzi, prestakuntza, gastu pertsonalak eta abarrek eraginak.

Gastu-kontzeptu hori ez da haintzat hartzen indarrean dagoen gutxieneko familiarrean. Nafar Parlamentuari dagokio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen aldaketa; horregatik eta Nafarroako familia kopuru zabalari eragiten dion zerga-berdintasun handiagoa lortzearen, artikulua bakarreko honako foru lege proposamena aurkezten da:

Artikulu bakarra. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1988 Foru Legearen aldaketa.

55. artikuluan, 4. idatz-zatian beste letra bat eransten da, e) izena eta honako edukia izanen duena:

“Prozedura judizialaren bidez askatasuna kentzea dekretatzen den kasuetan, modu trinkoan nahiz prebentiboan izan, auzipetutakoaren familiako zergadunak honako kantitatea kontutan hartuko du: urteko 250.000 pezeta lehengo mailako harremanagatik, odolkidetasunagatik izan nahiz ezkontza izan; urteko 150.000 pezeta bigarren mailako ahaidesun harremanagatik, odolkidetasunagatik izan nahiz ezkontza bidezkoa izan.

Zenbateko osoaren hori egiteko eskubidea izanen da baldin eta gertaera eragileak (askatasuna kentzea, haiz zuzen) zergaldian 180 egunez edo egun gehiagoz irauten badu, zergaren sortzapenaren eguneko egoera dena dela ere.”

Amaierako xedapena

2000ko urtarrilaren 1etik aurreko ondorioekin, foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Foru Lege proposamena, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duena

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 7an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehen.- Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen

Kontseilua sortzen duen Foru Lege proposamena-ri zuzenketak aurkezteko epea **2001eko maiatzaren 28ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2001eko maiatzaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, besteak beste, bertan behera utz ditzan azken hilabeteotan euskararen inguruan hartutako neurriak

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, besteak beste, bertan behera utz ditzan azken hilabeteotan euskararen inguruan hartutako neurriak".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 7an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea. Mozio hori jabelduraren ondorioa da eta, Erregelamenduko 183. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok talde parlamentarioa, Ganbarako arautegiaren arabera ezarritako eskubide-etaz baliatuta, hurrengo mozioa aurkeztu du 2001eko apirilaren 26ko Osoko Bilkuran jorratu zen jabelduraren ondorioz, Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin.

Arrazoinatzea

Aurrena D eredu hainbat gai gazteleraz txertatzeko Gobernuak erakutsi zuen asmoak eta ondoren eremu euskalduna deiturikoan "eredu eleanitz berria" eskaintzeko egin duen iragarpenak zera erakusten digute: Nafarroak Garaiko Gobernuak euskarazko irakaskuntza ahultzeko borondate politiko irmoa duela eta helburua lortzeko mekanismo berri arriskutsuak abian jartzeko erabakia hartu duela.

Gobernuaren jarrera honek gizartean izua zabaltzen du, orain arte nafarron hizkuntz eskubi-

deak zapuztuta baldin bazeuden, aurrerantzean areago murriztuko dizkigutela. Hizkuntz eskubideen aitortzak okerragora egingen du.

Nafarroako Gobernuak nazioarteko erakunde- eta Europar Batasunaren hizkuntz irizpideen aurka dihardu. Neurri hauen zapuztu egiten dituzte Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalak eta Eurokartak aholkatzen dituzten hizkuntza guttiagotuen neurri sustatzaile guztiak. Hiru ardatz hauetan bereziki: hizkuntza guttiuei ofizialtasunaren babesa eman behar zaiela; diskriminazio guztiak ezabatu egin behar direla; bere erabilera publiko eta pribatua sustatu beharra dela.

Nafarroako Gobernuak euskal hiztunak diskriminatu egiten gaitu. Oztopo berri gehiago jartzen baita euskaraz ikasi ahal izateko, ikastegietan euskararen erabilera areago murrizten duelako eta, oro har, nafarrek lehen jasaten genituen diskriminazioak areagotu egin dizkigutelako.

Nafarroako Gobernuak bizkar ematen dio nafar gizarteari. Egun nafar gizarteak inoiz baino indar haundiagoz eskatzen baitu euskarazko irakaskuntza. Gurasoen % 60ak eskatu du aurreko berriz ere euskara seme-alabentzat.

Nafarroako Gobernuak Nafarroari bere euskal identitatea ukatu nahi dio. Ezin liteke uler, bestela, euskara baztertzen duen bitartean, nola Gobernuak sustatzen duen ingelera, alemaniera eta frantsesaren ikasketa. Diktadura garaiko ildo politikoa berreskuratu du Gobernuak eta Nafarroa Garaian Madrilen diseinaturiko proiektu espagnolista ezarri nahi du indarrean.

Akordio proposamena

1. Osoko Bilkura honek azken hilabete hauetan indarrean jarri dituen eta iragarri dituen dekretu eta gainerako neurri murriztaile guztiak bertan behera utz ditzan eskatzen dio Nafarroako Gobernuari.

2. Orobat, haur hezkuntzatik hasita unibertsitatea bitarte, euskaraz ikasteko aukera Nafarroa Garaia osoan bermatzeko neurriak har ditzan.

3. Osoko Bilkura honek Diputazioari zera eskatzen dio halaber: "Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalak" eta "Eurokartak" zehazten dituz-

ten helburuak aintzat har ditzan eta euskararen normalizazioaren sustapenean eta nafar guztion hizkuntz eskubideen aitortzan oinarrituko den hizkuntz politika berria abian jar dezan.

Iruñean, 2001eko apirilaren 30ean

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sakanan industriarako lurzorua sor dezan

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK AURKEZTUA

Foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sakanan industriarako lurzorua sor dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 7an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Fernández de Barrena jaunak Biltzarreko Erregelamenduaren babesean honako mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin.

Azken denboretan maizegi ikusten dugu, Nafarroako eskualde batean baino gehiagotan, garapenerako proiektu estrategikoak gauzatzerakoan atzerapenak gertatzen direla, eta batzuetan ulertezina izaten da, horren arrazoia borondate politiko falta ez bada.

Adibide asko eman ditzakegu, baina gutxi batzuk besterik ez ditugu aipatuko:

Altsasu-Urdiaingo industrialdearen proiektuak 15 urte baino gehiago daramatza Foru Komunitateko Administrazioaren tiradera batetik bestera,

zona horretan industriarako lurzoruaren eskaerak, bai gure erkidegoko sustatzaileenak bai kanpoko-enak, etengabeak izan arren.

Erdialdean, berriz, enplegua galtzeko prozesua geldiarazi beharra dago, Nafarroako Gobernuak ez baitu neurririk hartzen guztioi eta bereziki bertako langabetuei egoera bideratzen laguntzeko.

Pirinio eta Pirinio aurreko aldeetan gertatzen denaz ere mintzatu gaitezke, gaur egun Gobernuak bertan duen politikak ez duelako egoeraren aldaketarik ekarriko, izan ere, biztanleen galera eta zahartzea geldiarazi ez ezik inflexio-une bat ezartzearen alde ere egin behar da, eskualdeetako populazio kopuruak berreskuratu eta etorkizunari itxaropenaz eta etsipenik gabe begiratzeko.

Egoera bideratzea badago, betiere asmatzen bada hartu beharreko bidea zein den, eta horretarako, bistan da modurik onena dela guztion ahaleginaz baliatzea eginkizun horietan. Tamalez, Biltzarrak iazko ekainaren 22an hartu zuen erabakiarekin ere, Gobernuak ez du oraindik sortu Landa garapenerako lurraldeko kontseilu aholkumaila, berau izanen baita eragile ekonomia eta gizarte eragileen partaidetzarako organoa eta topagunea. Beraz ez du behingoz abian jartzen egungo egoerari buelta emateko beharrezko liratekeen lanabesak.

Ez dugu ahaztu behar egoera ekonomikoa zikloen araberakoa dela, garai onen atzetik atzera egitekoak etortzen ohi dira, eta beraz, haizea alde dugunean desorekak konpontzeko gai ez bagara zailagoa izanen da egoerak txarrera egiten duenean.

Horregatik guztiagatik, Foru Parlamentuari proposatzen zaio honako erabaki proposamen hau onestea:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Sakana aldean industriarako lurzorua sortzeko politika egin dezan, lehenbailehen, alderdi hauek aintzat harturik:

– Altsasu-Urdiaingo industrialdearen urbanizazio lanak 2001.urtean, aurtan beraz, hastea.

– Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak eginiko udalez gaindikotako plan sektorialean aurreikusiriko bi exekuzio-unitateak sustatzea batera.

– Industrialdea mankomunitate baten bidez kudeatu dadin sustatzea.

2. Sei hilabeteko epean Gobernuak, tokian tokiko ekonomia eta gizarte eragileen parte hartzearekin, Nafarroako eskualdeetako berrindustrializazio plan bat egin dezan.

3. Eginik dagoenean, Biltzar honetan aurkeztu dezan eztabaidarako.

Iruñean, 2001eko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Estatu espainiarreko Gobernua premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten garapenaren aldeko lankidetzari dagokionez

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Estatu espainiarreko Gobernua premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten garapenaren aldeko lankidetzari dagokionez".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 7an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Askotariko Taldeko parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du Nafarroako Parlamentuaren hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Garapenerako lankidetzari buruzko Foru Lege onetsi berrian, Nafarroako GKEen Koordinakundearen eta erakunde internazionalista batzuen ekarpenak kontuan harturik, Nafarroako administrazio publikoen jarduketaren eremuen artean hauek ere ageri dira:

– Pobretzearen benetako kausak eta konponbideak azaltzerakoan presentzia eta konpromiso aktiboa izatea, eta halaber, botere publikoei hegoaldeko herrialdeak pixkanaka garatu daitezkeen neurri eraginkorrak hartzeko eskariak egiterakoan ere.

– Bidezko merkataritza deiturikoa sustatzeko eta herrialde pobretuen kanpo zorra erabat deuseztatzeko ekintzak.

– Era berean, aipatutako legearen zioen azalpenean gogorarazten da, Nazio Batuen irizpenari jarraikiz, garapenerako laguntza ofizial gisa Nazio Produktu Gordinaren % 0,7ko kuota ezartzera jo behar dela, herrialde pobretuek giza garapen jasagarria bultzatzeko beste tresna bat izan dadin.

– Ildo horretan, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak 1994ko urriaren 25ean onetsi zuen erabaki bat, Nafarroako Gobernua premiatzeko Nafarroako aurrekontu orokorretako gastuen aurrekontuaren zenbatekotik % 0,7 eman zezan garapenerako laguntzarako, finantza gas-

tuak, Estatuarentzako ekarpena eta toki entitateetarako transferentziak kenduta.

Erabaki hartan, halaber, Nafarroako Gobernuak premiatzen zen garapenerako laguntzari eman beharreko kuotarako NPGaren % 0,35eko gutxienezkoa gainditu zezan 1995. urtean eta, ahalik eta lasterren, % 0,7aren helburua lor zezan.

1995ean, % 0,7 ematearen alde gizartean izan ziren mobilizazioen giro beroan, estatu espainiarreko Parlamentuko talde guztiek (egun gobernuan dagoenak barne) "Elkartasunaren Ituna" izenekoak gainditu zuten, 2000. urtean NPGaren % 0,7a garapenerako laguntza gisa ematea hitzartu zutela bertan.

Halarik ere, erabaki horiek ez ziren bete eta Nafarroako Gobernuak nahiz Gobernu zentralak ez ziren kopuru horretara ailegatu garapenerako laguntza ofizialerako programetan, are gehiago gobernu zentralaren kasuan, kopurua urrun samar gelditu baitzen.

Zehazkiago, Nafarroako Gobernuak arestian aipatutako erabakian ezarritakoa baino 250 milioi pezeta gutxiago emateko asmoa du, eta Espainiako Gobernuak, oraintsu onetsitako Espainiako lankidetzaren plan zuzendarian, aurreikusi du garapenerako laguntza ofizial gisa eman beharrekoa ez dela NPGaren % 0,23ra baizik ailegatuko; ehuneko horretatik, gainera, % 27,79 FAD kredituak dira, kanpo zorra sortzen dutenak, eta 12.000 milioi pezeta Defentsa Ministerioaren aurrekonturako dira.

Lankidetzaren plan horrek kritika gogorrak jaso ditu GKEetatik, aberastasuna banatzeko eta txirotasuna desagerrarazteko lehentasunezko konpromisoaren aldeko apusturik ez dela egiten ulertuta, bai ordea enpresa espainiarren interesak gaineko guztiaren gainean jartzen dituen lankidetzaren eredu baten alde.

Orobat adierazi behar da plan hori Parisko Klubak, Merkataritzaren Mundu Erakundeak, Nazioarteko Moneta Fondoak eta Mundu Bankuak gidatzen duten politikaren interesen menpe dagoela, garapen eragileztat jotzen baititu, praktikak guztiz kontrakoak direla frogatzen badu ere.

Plan zuzendari horren aurreikuspenen arabera, herrialde pobretuek estatu espainiarrarekin

duten kanpo zorraren % 4, kasurik onenean, barkatu ahal izanen da hurrengo lau urtean, eta ez du inolako neurri eraginkorrik biltzen bidezko merkataritza izenekoak bultzatzeko.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Parlamentuko Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeari proposatzen diot honako erabaki hauek har ditzan:

1. Nafarroako Gobernuak premiatzea garapenerako lankidetzarako kontusaila gehitu dezan Nafarroako 2001eko aurrekontu orokorretako gastuen aurrekontuko % 0,7ra iritsi arte, Parlamentu honek lankidetzari eta hirugarren munduaren garapenerako laguntzari buruz hartutako erabakian eta Garapenerako lankidetzari buruzko foru legearen zioen azalpenean erabakitakoa betez.

2. Estatu espainiarreko gobernuak premiatzea garapenerako lankidetzarako programari eman diezazkion NPGaren % 0,7ra iristeko behar diren baliabideak, horretarako baliatuz Nazio Batuen erabakia (estatu espainiarreko gobernuaren sostenguekin onartua), zeinetan estatu aberastuei haien NPGaren % 0,7 garapenerako lankidetzari ematea gomendatzen baitu, eta "Elkartasunerako Ituna" izenekoan sinatutako erabakia, zeinak Parlamentuan ordezkartza zuten talde politikoen konpromisoa atxikitzen baitzuen 2000. urtean garapenerako lankidetzarako NPGaren % 0,7 emateko.

3. Estatu espainiarreko gobernuak premiatzea garapenerako lankidetzarako duen programan FAD motako kredituak erabil ez ditzan lankidetzarako tresna gisa, baliabideak Defentsa Ministerioaren bitartez bideratzea saihesten dezan beti eta aipatutako erakundeak (Parisko Kluba, Merkataritzaren Mundu Erakundeak, Nazioarteko Moneta Fondoak eta Mundu Bankuak) ez ditzan garapen eragileztat har.

4. Estatu espainiarreko gobernuak premiatzea "bidezko merkataritza izenekoak sustatzeko eta herrialde pobretuen kanpo zorra erabat deuseztatzeko" ekintzei ekin diezaien, Garapenerako lankidetzari buruzko foru legeak dioena betetzeko.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da zainzurien etiketen gainean berariazko arauak onets ditzan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da zainzurien etiketen gainean berariazko arauak onets ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 7an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Mozio horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da kontserbako nahiz izoztutako zainzurien etiketen gainean berariazko arauak onets ditzan.

Zioen azalpena

Azken urte hauetan, zainzuriaren produkzio sistemak etengabe eta indartsu egin du behera; bereziki, "Nafarroako zainzuria" jatorrizko deitura (Nafarroa, Errioxa eta Aragoi) duten eskualdeetan. Azken bost urte hauetan industria helburu zuten 6.000 hektarea zainzuri kendu dira, eta, ordezkatu ez direnez, 14.000 lanpostu galdu dira.

Labore horrek eragin handia du enpleguan, eta Peru eta Txinatik egiten den inportazio ugariek

–askotan, herri horietan dauden enpresa espainiarrak dira inportatzaileak– arriskuan jartzen dute labore hori. Hitz batean, Europako inportatzaileen-tzako izaten ari da mesedegarri muga-zerga horien jaistea.

Horiek horrela, bereziki da kezkarria ez agertzea produktuaren jatorria inportatutako zainzurietan, kontserba latetan edo izoztutako zainzurietan, nahiz eta Europako zuzentzaileek nahiz Espainiako arauak hori agintzen duten. Etiketei buruzko zuzentzaileak ezartzen duenez, "(...) etiketa, edozein eratakola dela ere, ezin izanen da nahasgarria izan eroslearentzat, bereziki elikagaiaren ezaugarriei dagokienez, eta, gainera, zenbait ezaugarri agertu beharko du argi; zer elikagai den, horren izaera, kalitateak, osaera, kopurua, iraupena, jatorria eta fabrikatzeko edo lortzeko modua". Eta ezartzen du baita ere "(adierazi beharko dela) jatorria, baldin eta hori adierazi ezean nahasgarria izan badaiteke kontsumitzailearentzako, hau da, elikagaiak benetako jatorria ez den beste bat duela uste badezake.

Praktikan ez zaio kontsumitzaileari informazioa ematen, ez da helburu hori betetzen, eta 1344/99 Errege Dekretua ere ez da betetzen ari. Jatorriari buruzko argibideak, batetik, irakurtzeko zaila den idazkeraz ematen dira, eta, bestetik, atzealdean jartzen zaien koloreak zaila egiten du argibide horiek atzematea. Nahastea areagotu egiten da, nabarmendu egiten baita non fabrikatuta dagoen eta ez, ordea, produktuaren jatorria.

Erabaki proposamena

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Espainiako Gobernua premiatzen du berariazko arauak onets ditzan kontserbako nahiz izoztutako zainzurien etiketen gainean, eta, horrela, argi eta garbi adieraz dakiola kontsumitzaileari produktuaren jatorria.

Iruñean, 2001eko apirilaren 3an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da animalien hondakinak osoki tratatzeko enpresa publiko bat sor dezan

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA MENDI BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da animalien hondakinak osoki tratatzeko enpresa publiko bat sor dezan".

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzorde-

ak, 2001eko maiatzaren 3an egindako bileran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2001eko martxoaren 19ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Foru Komunitateko ureztapenen plana azkartu eta bete dezan

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA MENDI BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Foru Komunitateko ureztapenen plana azkartu eta bete dezan".

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzorde-

ak, 2001eko maiatzaren 3an egindako bileran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2001eko martxoaren 26ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

F saila:
GALDERAK

Cetenasa enpresa publikoari buruzko galdera**FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 7an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Cetenasa enpresa publikoari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Jose Andrés Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari:

Teknologia berrien aurrerakada sorra eta nabaria da gure gizarte gero eta globalizatuagotan. Nafarroako Gobernuak plan teknologiko bat jarri du abian, Nafarroako enpresek modernitatearen trena gal ez dezaten eta puntako enpresa lehiakorrak izan daitezen lortu nahian.

Nafarroako Gobernuaren menpeko enpresa publikoen artean bada bat, Cetenasa, alegia, aipatutako garapen teknologiko horretan berebiziko konpromisoa hartu behar duena.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dugu:

1. Zenbat baja izan dira azken 5 urteotan Cetenasa enpresan? Enpresa utzi dutenek emandako arrazoiak eskatzen ditugu.

2. Ba al dago alderik sektoreko enpresetan eta Cetenasa enpresan eskaintzen diren lansari-mailen artean?

3. Zein da enpresa horretako plantillaren batez besteko adina eta langileen antzintasuna?

4. Ba al du onarturik langileak prestatzeko plana, parte hartu eta aholkua eman beharreko arlo guztietan puntakoak izateko bidea eman diezaien?

5. Zein da enpresa horretan behar den batez besteko denbora ahal deik eta epe laburrenean zerbitzua hobea eskaini ahal izateko inbertsio bat abian jartzeko?

6. Berriki sortutako enpresekiko, CENA edo energia berriztagarrien zentro nazionalarekiko, esate baterako, bakoitzaren eginkizunak mugaturik al daude, enpresa eta langile desberdinek gai berdinetan lan egin ez dezaten?

Iruñean, 2001eko maiatzaren 2an.

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Erriberrin telebista kateak ongi ikusteko arazoei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 7an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Erriberrin telebista kateak ongi ikusteko arazoei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Jose Andrés Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari:

Jakina da arazoak daudela Erriberrin telebistako kateen seinaleak (pribatuenak zein publikoenak) jasotzeko. Hala adierazten du Herrilan,

Garraio eta Komunikazio Departamentuan aurkeztu den protestak, 600 sinadura inguruk babestutakoak.

Teknikariek emandako arrazoiak bertan dauden aire-sorgailuek eragindako interferentziak direnez, hauxe jakin nahi dugu:

1. Zein neurri hartu ditu edo gogoan erabili ditu Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak?

2. Harremanetan jarri al da enpresa adjudikazio-hartzailearekin arazoa nola konpondu pentsatzeko?

3. Teknikariek proposatutako irtenbide bat da antenak Errioxako errepikagailuen aldera zuzentzea, baina hala eginez gero Erriberriko bizilagunek ez lukete jasoko kate publikoek Nafarroaz eskaintzen duten informazio apurra ere. Horixe al da departamentuaren konponbidea?

Iruñean, 2001eko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Nafarroako autobideko aparkalekuetan kamioiak aparkatzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M^a TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 7an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Nafarroako autobideko aparkalekuetan kamioiak aparkatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari

Félix M^a Taberna Monzón jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Garraioaren arloko zenbait langilek, kamioilariak alegia, begi bistako arazoak eragiten dizkien egoera baten berri eman dute. Nafarroako autobideko aparkalekuetan kamioiak aparkatu ditzakete 6 orduz gehienez, baina legeriak 8 orduko atsedenaldiak egitera behartzen ditu. Hori dela eta, horietako askok Garraioaren Hirira joatea beste aukerarik ez dute, horrek dakarren gastuarekin. Gure ustez, aparkatzeko baimena 2 ordu gehiagotarako luzatzea oso egokia izan liteke eta ez luke arazo askorik ez eta ibilgailu pilaketarik ere sortuko.

Horrexegatik, hauxe jakin nahi dugu:

– Audenasak epe hori luzatu dezakeen, kamioilariak nahitaez egin beharreko atsedenaldirakin bateratzeko.

– Zein dira aparkatzeko baimena mugatzeko arrazoiak.

Foru parlamentaria: Félix M^a Taberna Monzón

Tuterako Irakasleentzako Laguntza Zentroan jardunaldi batzuk debekatzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M^a TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 7an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Tuterako Irakasleentzako Laguntza Zentroan jardunaldi batzuk debekatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zergatik debekatu zion Hezkuntza kontseilariak Tuterako Irakasleentzako Laguntza Zentroari jardunaldi batzuk egitea Tuterako unibertsitateaz eta haur hezkuntzaz?

Iruñean, 2001eko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Félix M^a Taberna Monzón

Altsasuko suhiltzaileen parkeko zerbitzu medikuduna hobetzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M^a TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 7an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Altsasuko suhiltzaileen parkeko zerbitzu medikuduna hobetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun diezaiten:

Altsasu garrantzi handiko komunikazio-gunea da (trenbidea, N-1 errepidea eta Sakanako autobia) eta horrez gain, industri kopuru handia dago bertan. Tamalgarria bada ere, aipatutako ezaugarriak direla-eta trafikoko istripu asko gertatzen dira –aurtengo ostegun santuan Bakaikun gertatutakoa gogoratu besterik ez dago horretaz ohartze-ko– bai eta laneko istripuak ere. Halaxe da, eta

halaxe ageri da Altsasuko suhiltzaileen parkeko estatistiketan, haien ateraldietatik % 80 baino gehiago mota horretako ezbeharretarako izaten baitira. Bizia galtzeko arrisku larria dagoen kasuetan, zirkulazio nahiz laneko istripuetan, laguntza emateko egungo protokoloa SOS-Nafarroak koordinatzen du suhiltzaileen parkeko anbulantziarekin.

Anbulantzia hori medikuduna ez denez, sendagilea eta erizaina beste modu batean bertaratu behar izaten dira, edo bestela Iruñetik bidali behar izaten da zainketa bereziko unitatea duen anbulantzia bat. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batuaren ustez komenigarria da zerbitzu hori hobetzea, suhiltzaileen anbulantzia medikua

jarriz. Hobekuntza honen abantailak ukaezinak dira, eskuhartzea azkarragoa eta hobe izanen litzatekeelako, osasun etxeko larrialdietako zerbituari kalterik eragin gabe.

Hori dela eta, haxe jakin nahi dugu:

– Zer iritzi du Gobernuak eskaera horren inguruan?

– Iritzia kontrakoa bada, arrazoiak jakin nahi ditugu, eta halaber, komenigarritzat jotzen duen zerbitzua hobetzeko beste bideren bat aztertu eta gauzatzea.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Félix M^a Taberna Monzón

Espetxe berriak izanen duen kokalekuari buruzko galdera

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 7an egindako bilkuran, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak espetxe berriak izanen duen kokalekuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Bilzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, zenbait galdera egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan

Estatuko administrazio orokorrak eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak Nafarroan espetxe berria eraiki eta finantzatzeko hitzarmena izenpetu zuten iaz.

Hitzarmen horren arabera, bigarren klausulak dio espetxe horren kokapena bi administrazioek, ados jarri ondoren, erabakiko dutela, lurak Foru Komunitatearen ekarpena izanen badira ere.

Espetxeak izanen duen kokapenari dagokionez, litzarben eraikiko dutela dioen zurrumurrua zabaldu da bertako herri batzuetan, eta bizilagunak kezkatuak daude gai horrekin.

Hori dela eta, gaia argitzeko beharrezkoa da, Parlamentuko gure taldearen iritziz, berrespen ofiziala jasotzea, eta horrexegatik egiten ditugu galdera hauek:

1. Ados jarri al dira dagoeneko Estatuko eta Foru Komunitateko administrazioak espetxe berriak izan dezakeen kokapenaren gaian? Baiezkoan, adierazi zein den toki hori.

2. Zenbat aukera dute bi administrazioek esku artean espetxea kokatzeko? Adierazi guztiak.

3. Bat baino gehiago baldin badago, zein dira lehentasunezkoak?

4. Egin al ditu Nafarroako Gobernuak bilerak udalekin gaiaz mintzatzeko?

5. Zein udalekin egin dira bilerak?

6. Zer iritzi adierazi dute udal horiek?

7. Noizko dago aurreikusirik behin betikoz zehaztea espetxe berriaren kokapena?

Iruñean, 2001eko maiatzaren 3an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

G Salla:

JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 7an eginiko bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Lehen. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onestea. Haien hautape-na ondoren aipatzen diren oinarriekin bat egingen da.

Bigarrena. Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko

1. oinarria. Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Parla-mentuaren zerbitzuko transkriptore izateko lan-postu bat txanda irekian oposizio-lehiaketa bitar-tez betetzea.

1.2. Deialdi honen bidez izendatutako izangaia Biltzarreko nomina eta plantillako funtzionarioa izanen da, eta indarra duten xedapenek Nafarroa-ko Parlamentuko funtzionarioentzat ezarritako eskubide eta betebeharrak izanen ditu; hain zuzen ere, aipatu lanpostuari ezarritako eginkizu-nak beteko ditu.

1.3. Egungo lanpostuen sailkapeneko C maila-ri dagozkion lanskariak izanen ditu lanpostuak, eta Nafarroako Parlamentuko indarreko plantilla orga-nikoak esleitutako ordainketa osagarriak ere gehi-tuko zaizkio.

1.4. Hautapen probak gaingitu eta deialdi honetako xede den lanposturako izendatu ondo-ren, Nafarroako Parlamentuan sartu eta funtziona-rio izaera hartuko duen izangaia Gizarte Seguran-

tzaren araubide orokorrean afiliatuko da, eta alta emanen zaio, aipatu araubideak aurreikusitako-a-ren babesean.

Baldin eta deialdi honetako xede den lanpostu-rako izendatzen den funtzionarioa eskubide pasi-boen eta osasun eta gizarte laguntzaren araubi-dean afiliaturik badago –alegia, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioen zerbitzuko langile-en estatutuak eta gainerako xedapen osagarriek aipatzen duten hartan–, aukeran izanen du bertan segitu edo Gizarte Segurantzian afiliatzea.

1.5. Parlamentuko organo eskudunek ezarriko dute lanaldia; edonola ere, lanaldia alda daiteke, zerbitzu-arrazoiak direla-eta.

2. oinarria. Izangaiek bete behar dituzten bal-dintzak.

2.1. Oposizio-lehiaketan parte hartzeko, eska-bideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, ondoko baldintza hauek bete behar dira:

Nazionalitate espainiarra izatea.

Adinez nagusia izatea.

Goi batxilergoaren edo bigarren mailako lanbi-de heziketaren titulua edo baliokidearen jabe iza-tea, edo aipatu tituluetakoa bat eskuratzeko moduan egotea eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

Dagozkion eginkizunak betetzeko behar den gaitasun fisiko zein psikikoa izatea.

Eginkizun publikoak betetzeko desgaitu edo gabetua ez egotea, eta administrazio publikoren baten zerbitzutik berezia ez izatea.

2.2. Deialdi honetako zazpigarren oinarriak ezarri epe eta moduan egiaztatu beharko ditu aurreko baldintza horiek lanpostua ateratzen duen izangai onartuak, eta eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean betetzen dituela ulertuko da. Halaber, hautapen-prozedura osoan zehar bete beharko ditu bigarren oinarri honek dakar-tzan baldintzok; alegia, izendapenera arte.

3. oinarria. Eskabideak.

3.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean (Arrieta, 12, Iruña) aurkeztu beharko dira, edo Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipatu bideetako edozein erabiliz, hogeita hamar egun naturaleko epean, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatuta. Eskabide horiek deialdi honetako I. eranskinan agertzen den ereduaren arabera izan beharko dira. Eskabide horietan izangaiek adierazi beharko dute ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea bukatzen den eguna kontuan hartuta. Merezimendu-lehiaketarako aurkeztu dituzten merezimenduen egiaztagiria ere erantsiko zaizkio eskabideari.

3.2. Minusbaliatuek ariketak egiteko denbora eta baliabide aldetik behar ditzaketen egokitzapenak eskatu ahaliko dituzte, horren beharrik izanez gero. Kasu horretan, eskabidean adierazi beharko dute zein ezintasun duten eta zein egokitzapen eskatzen duten. Minusbaliotasunaren ziurtagiria ere, erakunde eskudunek luzatua, erantsi beharko dute.

3.3. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

4. oinarria. Izangaien onarpena eta erreklamazioak.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitarara dadila aginduko.

4.2. Izangai baztertuek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahaliko dituzte onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurka, eta akatsik izan bada, zuzendu, zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hamar egun baliodunen epearen barruan.

4.3. Ezarritako epearen barruan eskabiderik aurkeztu ez bada, Parlamentuko Mahaiak deialdia bete gabe gelditu dela adierazteko ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.4. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko ebazpena emanen du, eta Nafarroako Parla-

mentuko Aldizkari Ofizialean argitarara dadila aginduko.

4.5. Izangai baztertutik ez badago zuzenean onetsiko da behin betiko zerrenda.

5. oinarria. Epaimahaiaren osaketa, eraketa eta iharduketa.

5.1. Epaimahaia ondoko kide hauek osatuko dute:

Mahaiburua: Amelia Salanueva Murguialday andrea, Nafarroako Parlamentuko Lehen Lehendakariordea.

Ordezkoa: Isabel Arboniés Bermejo andrea, Nafarroako Parlamentuko Bigarren Lehendakariordea.

Mahaikidea: Carlos Javier Gil Martínez jauna, Nafarroako Parlamentuko Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko burua.

Ordezkoa: Francisco Del Cerro Paúl jauna, Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Orokorretako burua.

Mahaikidea: Adolfo Morales Gordo jauna, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

Ordezkoa: Nekane Iriarte Amigot andrea, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

Mahaikidea: Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak maila horretako funtzionarioen artean izendatutako kide bat.

Ordezkoa: Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak maila horretako funtzionarioen artean izendatutako kide bat.

Idazkaria, hizpide eta botoarekin: Carlota Aranz Marti andrea, Nafarroako Parlamentuko transkriptorea.

Ordezkoa, hizpide eta botoarekin: Francisca Palma Romero andrea, Nafarroako Parlamentuko transkriptorea.

Epaimahaia hautapen probak hasi baino lehen eratu beharko da.

5.2. Epaimahaiko kideek ezin izanen dute parte hartu, eta halaxe jakinaraziko diote Mahaiari, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Legearen 28. artikuluan ezarritako inguruabarrak gertatzen direnean.

5.3. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, kideen gehiengo absolutua bildu gabe.

5.4. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduz sor daitezkeen arazo guztiak.

5.5. Epaimahaiak aholkulari espezialistei dei egin ahalko die proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoan aritzera mugatuko dira, eta haietan soilik emanen diote laguntza epaimahaiari.

5.6. Deialdi honen oinarriak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantza edo erreklamazioak, bai eta aurrikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, epaimahaiak ebatziko ditu.

6. oinarria. Oposizio-lehiaketaren garapena.

6.1. Oposizio-lehiaketa bi alditan egingen da: lehenbizi lehiaketaldia, eta, gero, oposizioaldia, oinarri hauetan adierazitako moduan.

6.2. Oposizio-lehiaketa 2000ko irailean hasiko da. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenean bertan zehaztuko dira probak hasiko diren tokia, data eta ordua. Gero, epaimahaiak garaiz jakinaraziko ditu gainerako probak egiteko iragarkiak, arauzko moduan.

6.3. Lehiaketaldia.

6.3.1. Alegatutako merezimenduak deialdi honen II. eranskinean azaldu baremoari jarraikiz puntuatuko dira.

6.3.2. Epaimahaiak edozein unetan eska ditzake izangaiek alegatutako merezimenduei buruzko azalpenak eta datu osagarriak.

Izangai bakoitzari dagozkion merezimenduak arrazoiz baloratuko ditu epaimahaiak, baremoaren atal bakoitzaren arabera; edonola ere, ezin izanen da alegatu gabeko merezimendurik, edo dokumentuz egiaztatu gabekorik, aintzat hartu, ez eta atal bakoitzari dagokion gehieneko puntuazioa gainditu.

6.3.3. Lehiaketaldia bukatu ondoren eta oposizioaldia hasi baino lehen, Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean jarriko dira aldi horretan izangaiek lortu dituzten puntuazioak. Izangaiek oposizioaldiko probetan ateratako puntuazioari gehituko zaio lehiaketaldian ateratako puntuazioa. Horrela aterako da oposizio-lehiaketaren guztizko puntuazioa.

6.4. Oposizioaldia.

6.4.1. Oposizioaldiak ariketa hauek izanen ditu:

– Lehenbiziko ariketa:

a) Mekanografia proba. Gutxieneko abiadura, 250 pultsazio minutuko. Proba honetarako oposizio egileek beraien makinak erabiliko dituzte, eta elektrikoak edo elektronikoak debekatuta egonen dira. Epaimahaiak emandako idazkia transkribatzeko moduari dagozkion zehaztasun batzuk ezarri ahalko ditu.

b) Ortografia. Epaimahaiak prestatutako ortografia proba bat, diktatua edo galdetegia, burutzea izanen da.

– Bigarren ariketa:

Deialdi honen III. eranskinean dagoen egitarauaren inguruan epaimahaiak aurkeztuko dituen gai edota aferei idatziz erantzutea.

Probaren iraupena ez da bi ordukoa baino luzeagoa izanen.

– Hirugarren ariketa:

Idatziz eta gehienez ere bi ordutan, epaimahaiak aurkeztuko dituen ariketa praktiko bat edo batzuk egitea, Nafarroako Parlamentuko transkriptoreen kidegoko funtzionarioei dagozkien eginkizunei buruzkoak.

6.4.2. Ariketa bakoitza bukatutakoan, epaimahaiak jendaurrean jarriko du, Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean jarri ere, ariketa gainditu duten izangaien zerrenda haien kalifikazioekin, eta, halaber, oposizioko hurrengo ariketa zein toki, egun eta ordutan egingen den, 48 ordu lehenagotik bederen.

6.4.3. Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingen da. Izangaiek Nortasun Agiri Nazionala edo epaimahaiak nahiko kontsideratzen duen beste identifikazio agiri bat aldean dutela agertu behar dute, eta agertzen ez diren izangaia oposiziotik baztertuta geratuko dira.

6.4.4. Hautapen probak egiteko, denbora eta baliabide egokitzapenak jarriko dira hala eskatzen duten minusbaliatuentzat, eskabidean azaldutakoaren arabera.

7. oinarria.- Probak gainditzten dituztenen zerrenda eta agirien aurkezpena.

7.1. Azken ariketaren kalifikazioa amaiturik, epaimahaiak zerrenda bat jarriko du Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean; oposizioaldia gainditu dutenen zerrenda, hain zuzen ere. Izangai bakoitzak lortu dituen kalifikazioak batuta ateratako puntuazioaren arabera jarriko da aipatu zerrenda. Halaber, Parlamentuko Mahaiari igorriko zaio puntuaziorik altuena lortu duen izangaiaren aldeko izendapen proposamena.

7.2. Izendapen proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko 30 egun naturalen barrenean, proposatutako izangaiek ondoko dokumentuak aurkeztu beharko dituzte Biltzarreko Erregistro Orokorrean:

Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna erakusten dituen agiri baliokidea.

Deialdiaren bigarren oinarrian eskatutako tituluaren fotokopia konpultsatua, edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekinarena.

Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak luzatutako txostena, karguari dagozkion eginkizunak betetzea galarazten duen eritasun edo akats fisiko nahiz psikikorik ez duela egiaztatzen duena.

Minusbaliaren bat alegatu duten izangaiek, gainera, hura deialdiaren xedeko lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria, balorazio eta orientazio talde eskudunek luzatua.

Zinpeko aitorpena, eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua edo gabetua ez dagoela, eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik ez dela bereizia izan dioena.

Nafarroako Foru Eraentza begiratu, Konstituzioari eta legeei men egin eta karguaren eginkizunak zintzo beteko dituela zin egin edo hitz ematea.

7.3. Aipatu epearen barrenean, eta behar bezala arrazoitutako ezinbesteko kasuak salbu, agiri horiek aurkeztu ez dituztenak ezin izanen dira izendatu, eta haien jarduketa guztiak deusezturik geratuko dira, eskabidearen faltsukeriagatik izan dezaketen erantzukizuna galarazi gabe.

7.4. Aurreko idatzian aurreikusitakoa gertatuz gero, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak baja bete beharko du, probak gaingitu dituztenen zerrendan –7.1 idatzian aipatutakoan, hain zuzen ere– hurrengo den izangaiarekin bete ere, eta azken horrekin ere aurreko idazatietan adierazitako moduan jokatu da.

8. oinarria.- Izendapena eta jabetza hartzea.

8.1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, ebazpenaren bitartez, aurreko oinarrietan ezarritakoa betetzen duen izangaia izendatuko du Nafarroako Parlamentuko funtzionario, transkriptor lanpostua betetzeko.

8.2. Izendapen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

8.3. Izendapena jakinarazi eta ondoko hilabetean hartu beharko du lanpostuaren jabetza izendatutako izangaia. Aipatu epean jabetza hartzen ez badu, Nafarroako Parlamentuko funtzionario izaera hartzeko eskubide guztiak galduko ditu, aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu. Halakorik gertatuz gero, 7.4 idatz-zatian ezarritakoari jarraituko zaio.

9. oinarria.- Agiriak itzultzea.

9.1. Aurkezturiko agiriak erretiratzeko ahalgo dituzte izangaiek, baldin eta aldezturik horretarako eskaera espresatzen badute, non eta erreklamazio edo errekurtsorik aurkeztu ez den. Eskaera hiru hilabeteko epean aurkeztu ahalgo da; epe hori kontatzen hasiko da izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik bi hilabete igaro direnean.

9.2. Aurkezturiko agiriak erretiratu gabe aurreko idatz-zatian aipaturiko epea igaro ondoren, izangaia horiek berreskuratzeari uko egin diola ulertuko da, hark galdu egingen du horretarako eskubidea, eta erretiratu gabeko agiriak suntsitu egingen dira.

9.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkeztu baldin bada, aurkezturiko agiriak itzultzen ahalgo zaizkio erreklamazio edo errekurtsoren izapidatzeak posible egingen duenean.

10. oinarria.- Errekurtsokak.

Deialdi honen aurka, bere oinarrien aurka, izendapen-erabakiaren aurka eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak deialdi hau dela-eta har ditzakeen gainerako erabakien aurka, ondorengo errekurtsotako bat erabil daiteke:

a) Berraztertze errekurtsoa, Biltzarreko Mahaiari zuzendua, hilabeteko epean, egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Parlamentuko Lehendakariak edo epaimahaiak deialdi hau aplikatzeko ematen dituzten gainerako egintzak direla-eta, gora jotzeko errekurtsoa paratu ahalgo da Nafarroako Parlamentuaren Mahaiari zuzendua, hilabeteko epean, egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

I. ERANSKINA

Eskabide eredua

_____, J/A, adinez nagusi,
_____, Nortasun Agiri Nazionaleko zenbakia
duena _____, 19....(e)ko _____(a)ren
_____(a)n jaioa, _____(e)koa, helbidea
_____, _____n, _____kalean, _____zk.an,
_____, _____pisan, _____posta kodea, eta _____tele-
fono zk.a dituenak.

HAUXE ADIERAZTEN DU:

Nafarroako Parlamentuaren transkriptore lan-
postu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko
deialdian parte hartu nahi duela; izan ere,
2001eko maiatzaren 7an onetsi zuen Nafarroako
Parlamentuko Mahaiak deialdi hori.

Karguan aritzea galarazten dion eritasun edo
akats fisiko nahiz psikikorik ez duela.

Ez duela indarra duten xedapenetan ezarritako
ezintasunik.

Ez dela diziplina espediente bidez inongo
administrazio publikoren zerbitzutik bereizia izan,
ezta desgaitua ere eginkizun publikoak betetzeko.

Deialdiaren bigarren oinarrian adierazitako titu-
lazioaren jabe dela.

Eskabideak aurkezteko emandako epea amai-
tzen den egunean, eskatutako baldintza guztiak
betetzen dituela.

Baduela/ez duela minusbaliotasunik. Eskabi-
deari erantzen zaion dokumentuan egiaztatzen
duela hori, hautaprobak denbora eta baliabideen
aldetik egokitzea eskatzeaz batera.

Azaldutakoaren ondorioz,

HAUXE ESKATZEN DU: Eskabide honetan
aipatzen den deialdirako onartua izatea. Deialdian
eskatzen diren dokumentuak eta merezimenduen
egiaztagiria ere erantzen zaizkio eskabideari.

Iruñean, 2001eko aren (e)an

II. ERASKINA

Merezimenduen baremoa

1. Ikasketa merezimenduak

a) Ikasketa tituluak, ofizialki ezagutuak, epai-
mahaiak baloratuko dituenak: 4 puntu arte.

b) Bestelako ikasketak, epaimahaiak baloratu-
ko dituenak: 2 puntu arte.

2. Administrazioan sartzea eta karrera.

a) Administrazio publikoan lortutako oposizio,
lehiaketa edo oposizio-lehiaketengatik, epaima-

haiak baloratuko ditu, gehienez ere, bakoitzeko
1,5 puntu eta atal honetan osoko kopurua ez da 4
puntu baino gehiagokoa izanen.

b) Administrazioak emandako ohorezko aipa-
menak eta espezializazio ikastaroetara joan
izana, epaimahaiak baloratuko dituenak: gehienez
ere 2 puntu.

3. Aintzinasuna.

a) Nafarroako administrazio publikoen zerbi-
tzuan lan egin izana: zerbitzu urte bakoitzeko,
0,50 puntu.

b) Beste administrazio publikoren zerbitzuan
lan egin izana: zerbitzu urte bakoitzeko, 0,40
puntu.

c) 3. atal honi dagokion gehieneko puntuazioa
ez da 6 puntukoa baino handiagoa izanen.

4. Administrazio publikoan zein enpresa pribat-
uan, deitutako lanpostuetako eginkizunen pare-
koak bete edo zerbitzuak eman izana: epaima-
haiak baloratuko ditu, 6 puntu arte, kontuan izanik
betetako lanpostuen kategoria, sartzeko zailtasu-
nak, aintzinasuna eta destinoak.

5. Merezimendu espezifikoak.

Bete behar den lanpostuaren gaietan ezagu-
pen espezifikoengatik, epaimahaiak baloratuko
dituenak: gehienez ere 6 puntu.

BAREMOA APLIKATZEKO ARAUAK

1. Izangaiek alegatutako merezimenduak aur-
keztuko dituzte ordenean sailkatuta, eraskin hone-
tan dagoen puntuazio eskemarekin bat.

2. Egiaztapena ondoan zehazten den eran
burutuko da edo zuzenbidean onartzen den beste
edozein frogabideren bitartez:

2.1. Titulu akademikoak eta ikasketak: jatorriz-
koa edo fotokopia konpultsatua.

2.2. Administrazioan sartzea eta karrera: admi-
nistrazio ebazpenaren kopia kautotua, fotokopia
konpultsatua edo egiaztagiri ofiziala.

2.3. Aintzinasuna: emandako zerbitzuen
egiaztagiri ofiziala edo egiazki eman den zerbi-
tzualdiaren zinpeko deklarazioa, eta azken hau,
praktiketako funtzionari izendapenaren aurretik,
dagokion egiaztagiri ofizialaren bidez ziurtatu
beharko dena, hala behar bada.

2.4. Merezimendu espezifikoak eta administra-
zio publikoan zein enpresa pribatuan, deitutako
lanpostuetako eginkizunen parekoak bete edo
zerbitzuak eman izana. Egoki irizten zaien frogabi-
deak, adierazi beharko direlarik gai bakoitzean

izaten diren ezagupenak, bai eta merezimendu gisa alegatzen diren lanak egiaztatu ere.

3. Egiaztagiriek baremoaren aplikazioak eskatzen duen informazio guztia izan beharko dute. Egiaztatu gabeko merezimenduak ez dira kontatuko.

III. ERANSKINA

1. GAIA.- 1978ko Espainiako Konstituzioa: hatsapen orokorrak. Espainiarren funtsezko esku-bide eta eginbeharrak.

2. GAIA.- Gorte Nagusiak. Diputatuen Kongresua eta Senatua. Osaketa eta eginkizunak.

3. GAIA.- Estatuko Gobernua eta Administrazioa. Estatuko botereak eta haren eginkizunak. Gobernua. Administrazioa.

4. GAIA.- Botere Judiziala: konstituzio eraketa. Konstituzio Auzitegia: osaketa, izaera eta esku-menak.

5. GAIA.- Estatuko herrialdeen antolamendua: printzipioak. Autonomi Erkidegoak. Haien konstituzio printzipioak eta haien erakundeen antolamendua. Toki administrazioa.

6. GAIA.- Nafarroa Gaztelako Koroan sartu aitzin. Nafarroa Gaztelako Koroan sartzea. Foraltasuna zaintzeko erakundeak.

7. GAIA.- 1841eko Lege Itundua. Prestaketa. Izaera juridikoa eta haren edukiaren azterketa.

8. GAIA.- Nafarroak eta Estatuak izenpeturiko hitzarmen ekonomikoen historia. 1990eko abenduaren 26ko Hitzarmen Ekonomikoa: egitura. Horren ondoriozko funtsezko printzipioak.

9. GAIA.- 1978ko Espainiako Konstituzioko lehen xedapen gehigarria. Nafarroako Foru Erantzua Birrezarri eta Hobetzeari buruzko testua: izaera eta esanahia. Egitura eta sistematika. Aurretikoak. Prestaketa. Edukia.

10. GAIA.- Nafarroako Foru Erakundeak. Nafarroako Parlamentua edo Gorteak. Historia, osake-

ta eta eginkizunak. Instituzioaren autonomia: aurrekontuak, erregelamendua eta barne gobernua.

11. GAIA.- Foru Diputazioa edo Nafarroako Gobernua. Eginkizunak. Osaketa. Nafarroako Gobernuako Lehendakaria. Hautaketa. Nafarroako Parlamentuarekiko erantzukizun politikoa.

12. GAIA.- Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren eta Administrazioaren antolamendua eta egitura.

13. GAIA.- Administrazio jardunbideko hatsapen orokorrak. Horren arauak. Administrazio jardunbideko denborak: egun eta ordu baliodunak, epeak zenbatzerakoan. Agiriak hartu eta erregistratzea.

14. GAIA.- Funtzionari publikoaren harremanaren izaera juridikoa. Erantzukizun administratibo, zibil eta kriminala. Diziiplina espedienteak.

15. GAIA.- Foru parlamentarioak: eskubideak eta betebeharrak. Parlamentuko taldeak.

16. GAIA.- Parlamentuaren antolaketa: Lehendakaria, Mahaia eta Eledunen Batzarra. Batzordeak, Osoko Bilkura eta Batzorde Iraunkorra.

17. GAIA.- Parlamentuaren jardura: bilkurak, gai zerrenda, bozketak, epeen zenbaketa eta agiri-urri aurkezpena.

18. GAIA.- Ohiko legegintza-jardunbidea. Legegintza-jardunbide bereziak.

19. GAIA.- Jabeldurak eta galderak. Mozioak.

20. GAIA.- Nafarroako Parlamentuko langileen estatutua. Zerbitzuen egitura. Legelari Nagusia. Langileen gaineko arautzea.

21. GAIA.- Nafarroako Kontuen Ganbara: izaeraren, eginkizunen, antolamenduaren eta jardueraren azterketa laburra.

22. GAIA.- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa. Arartekoaren estatutua. Eginkizunak, antolamendua eta jardura.

H Saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

9/2000 Foru Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Zerga bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 7an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehena. 9/2000 Foru Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Zerga bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena, berresten ote den Osoko Bilkuraren esku jartzea. Erregelamenduko 88. artikulua araberara, osoko eztabaida izanen du.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

9/2000 Foru Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Zerga bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena

Estatuak, Zerga, Administrazio eta Gizarte arloko Neurriei buruzko abenduaren 29ko 55/1999 Legearen bidez, Zerga Berezien gaineko abenduaren 28ko 38/1992 Legea aldatzea onetsi zuen. Horren eraginez, hamar urteko edo gehiagoko turismoko ibilgailu erabilien titular diren subjektu pasiboek kenkariak izateko eskubidea izan dezaten, eta haien lehen matrikulazioa Espainian egina ez bada, ezarri egiten da behin betiko matrikulazioa Espainian egina behar duela izan, gutxienez, hura desegiteko behin betiko baja eman baino sei hilabete lehenago. Hori dela eta, bidezkoa da Nafarroako araudia aipatu legeari egokitztea. Horretarako, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 23ko 25/1985 Foru Legearen lehenbiziko

xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz, behin-behinekoz arautuko duten xedapenak foru dekretu bidez onetsiko dira. Xedapen horiek hartu eta hamar eguneko epearen barnean Nafarroako Parlamentura igorriko dira, gero hark behin betikoz onetsi ditzan.

Horrenbestez, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik eta Nafarroako Gobernuak bi milako urtarrilaren hamarreko bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorritz,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra. Abenduaren 30eko Zerga Bereziei buruzko 20/1992 Foru Legea aldatzea.

Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legearen 47bis.2 artikuluko a) hizkia aldatzea. Ondorioak 2000ko urtarrilaren 1etik aitzina izanen ditu, honelako edukiarekin:

“a) Artikulu honek aipatzen duen murrizketa aplikatu behar den unean, hamar urte edo gehiagoko edukitzea. Antzintasuna kontatuko da behin betiko lehen matrikulazioa egin zitaion egunetik.

Behin betiko lehen matrikulazioa ez bada Espainian egin, aurreko idatz-zatian aipatzen den antzintasunaz gain beharrezkoa izanen da turismoko ibilgailu erabiliaren behin betiko matrikulazioa Espainian egina izatea, hurrengo b) hizkian aipatzen den desegiteko behin betiko baja eman baino sei hilabete lehenago, gutxienez.”

Azken xedapena

Foru dekretu honetako arauak behin-behinekoak izanen dira, harik eta Nafarroako Parlamentuak onetsi arte.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 ». Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 ».	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	---